

GIPUZKOAKO POLITIKA OROKORREKO BILKURA

HITZALDIA¹

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA

EAJ-PNVren bozeramalea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

Gipuzkoarron ordezkaritza demokratikoa dugu Batzar Nagusi hauetan, eta gipuzkoar herritar guztien alde egiteko enkargua dugu. Ez dezagun hori ahaztu, funtsezkoa delako.

Gipuzkoa txikia izan, bada. Baina bada ere, gurea. Eta gurea izateaz aparte, baditu beste ezaugarri batzuk, den-denak ez dira onak izango, baina onak, asko. Gipuzkoa Lurralde aurreratua da, garapen maila handikoa, gizarte oreka mantentzen asmatu duena, ekonomia indartsu eta berritzailea duena, enplegu maila ona duena eta langabezia gutxikoa, zerbitzu publikoetan inguruetako guztiei inbidiarik ez diona, beste edozein baino interklasistagoa, euskal Lurraldeetan Lurralderik euskaldunena, eta abertzalea.

Esandako horretan, orokorrean, hemen gauden denok ados samar egon gaitezke. Datu objektiboak direlako, besterik ez bada.

Eta, nik uste horrelako gauzak esatea ere komeni dela, izan ere, jendea mezu ezkorrekin bonbardatzeko joera dagoelako aspaldi honetan eta ezkortasunak bazterrak gogaitu egiten dituelako. Diputatu Nagusiak antzeko aipamen bat egin duela iruditu zait.

¹ Testua Arrizabalaga bozeramaleak goizeko prentsaurrekoan eta arratsaldeko bi saioetan esandakoen bilduma bat da.

Eta jendea gogaitzea ez da jarrera zintzoa. Batzuek pentsa dezakete errenta politikoa lor dezaketela horrela jardutetik baina, edonola ere, ez da zintzoa.

Bestalde, egia da gaur egungo munduan dabilzan arazo, erronka, aldaketa, era guztietako krisiak, eta, baita, aukerak ere, Gipuzkoan eragiten dutela.

Mundo mailako egoera definitzen duten bi ezaugarri aipatu daikezke: **konplexutasuna eta ziurgabetasuna**. Horiek dira gaur egungo munduaren egoera definitzen duten hitzak.

Ekonomia ereduaren eta eredu hori zuzentzen duten arauen krisi globala bizitzen ari gara: hara nola, Trump-en neo-feudalismo globalak ekarri digun muga-zergen gerra, inflazioa edo zorraren gehitze ikaragarria hainbat lekutan.

Krisi klimatikoa eta ingurumen krisia eta, horrekin lotuta, beroketa globala, guztion bizitzeko erari eragiten dion eraldaketa energetikoa, biodibertsitate galera edo migrazio klimatikoen fenomenoak.

Krisi demografikoa: Europa zahartzen ari da, eta gu Europan. Afrikan, aldiz, 100 urtetan 10 aldiz biderkatu da populazioa.

Eta, krisi larri guztien artean arriskutsuena izan daitekeena: **demokraziaren krisia**. Dagoeneko, 74 herrialdetan autokrazia ezarri da. *Y subiendo*. Autokrazia horiek ez dira denak berdinak, baina denek dute etsai bera: demokrazia. Gure sistema demokratikoa, hain zuzen.

Edonola ere, demokraziaren krisia ez da urrutiko dinamika, geure artean ere polarizazioa, populismoa, demagogia, desinformazioa eta gezurra hedatzen doaz eta muturreko aukera politikoak indarra hartzen ari dira. Eta gaur arratsaldean adibide batzuk entzun ditugu populismo eta demagogiarena. Adibidez, “etxebizitza, batez ere

Eta, azkenengo krisia: **krisi geopolitiko eta humanitarioa**. Honen adierazle ankerrenen lekuko izaten ari gera: Putinen inbasioa Ukrainan eta Netanyahu Gazan egiten ari den genozidioa. Berriz ere, bi satrapa bihozgabe horiei, ozen esaten diegu berehala eten dezatela erasoak, eta ez gara nekatuko hori esaten, nahiz eta jakin gure ahotsa ipurdirik gabeko lapikoan eroriko dela.

Ez egonkortasuna jabetu da munduaz, Putin, Netanyahu eta Trump bezalako en eskutik. Nazioarteko zuzenbidea eta multilateralismoa zapaltzen dituzten satrapa larderiatsuak. Zer esanik ez giza eskubideak eta justizia.

Errealitate hau kontutan hartzea komeni da: zuzenean eragiten digulako eta, baita, zenbaiten diskurtsoek –hemen bertan ere bai– errealitate globala ahaztu egin nahi izaten

dutelako, euskal erakundeak arazo globalen erantzule egin nahian. Euskadi eta Gipuzkoa isolatuta baleude bezela.

Ba, garai zail eta zikin hauetan, irtenbide majikoen demagogiak, gure artean ere dezente hedatuta dagoen gaitzak, hondamendira garamatza. Ba ez! Ez dugu ametitzen joko hori. Euzko Alderdi Jeltzaleak politika onaren alde jokatzen du, politika zintzo, eraginkor eta gauzagarriaren alde. Bai Gipuzkoan bai Euskadin. Gure herriari zor gatzazkiolako eta, Eider Mendozak esan bezala, itsaso handian lemari tinko eutsi behar zaiolako.

Frente a la complejidad y la incertidumbre de esa realidad que nos amenaza, las instituciones deben ofrecer viabilidad y certidumbre. Liderazgo y eficacia. No se deben dejar llevar por la presión de la demagogia fácil, deben afrontar soluciones y responder con la verdad ante la mentira populista.

Y creemos, sinceramente, que esa ha sido la dirección del discurso de la Diputada General de Gipuzkoa: proyectos ambiciosos, de futuro, de esperanza, humanistas y de justicia social, factibles, refrendados en datos, atendiendo a los problemas de las personas que hacen Gipuzkoa. Proyectos diseñados con la mirada en el horizonte, pensados en el interés general, atendiendo a la realidad y sus limitaciones y problemas; sin perder el objetivo de llevar a buen puerto el barco de Gipuzkoa, a pesar de la tempestad, y sin hacer caso a los cantos de sirena sin sustancia que se oyen entre las olas.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak ez ditu ezkutatu zailtasunak, arazoak eta erronkak eta ez digu formula magikoz osatutako katalogo bat azaldu. Ez du hori egin. Formula magikoak beste batzuek erabiltzen dituzte, ez da hori gure eredua.

Egin duena izan da diagnostiko zuzen baten gainean landutako **proiektu egingarri eta eraginkorra aurkeztu**

Gipuzkoarentzat. Zailtasunei anbizioz eta errealismoz aurre egingo dien proiektua.

Ez dugu **ezinezkorik** agintzen. Diputatu Nagusiak ez du ezinezkorik agindu. Baina etengabeko hobekuntza eta anbizioa bai, agindu ditu.

*Es evidente que el Gobierno Foral **no cuenta con mayoría absoluta**. Y, por eso, es un gobierno que hace de la necesidad virtud. Y apela al acuerdo por necesidad, además de, y esto es importante, por convicción democrática.*

Por eso ha propuesto, una vez más, diálogo y acuerdo de parte de un Gobierno de coalición sustentado por dos partidos que cooperan, también, en base a un acuerdo previo entre diferentes.

Elkarrizketa eta akordio bokazioa eragile sozial, ekonomiko eta kulturekin, denen artean auzolanean jarduteko.

Eta, nola ez, **oposizioko taldeekin elkarrizketarako eta akordiorako bokazioa** azaldu du Mendoza Diputatu Nagusiak, bere izendapenaren momentutik eten gabe azaldu duen bokazioa, eta azken urte honetan gauzatu duena Gipuzkoaren onerako bi funtsezko gaietan: **Aurrekontuak eta Erreforma Fiskala.**

Baina parte-hartzea sustatzea, kultura demokratiko berria eta adostasun bilaketa ez da oposizio politikoarekin lortu nahi diren adostasunetara mugatzen, ez. Gipuzkoako Foru Aldundiaren **gobernantza eredua** berezia izaten ari da azken hamar urte hauetan, urtero indarberritua. Izan ere ez da erraza izango aurkitzea beste erakunde bat antzeko ahalegina egiten duena klase guztietako eragileekin, ez Euskal Herrian ez hemendik kanpo.

Beste askorekin landutako gauza asko ari da garatzen Foru Aldundia, besteak beste, etorkizun hurbileko proiektu eta estrategia berritzaile eta disruptiboak: **Mubil** ekosistemaren ingurukoa, **biozientzia eta bioteknologiak** garatzen dituenak, **teknologia kuantikoen** ingurukoak, **zahartzaroan** eragiteko Adinberri estrategia, eta beste hainbat.

Eta baita, **zaintza eredu berritzailearen** inguruko proiektu komunitarioak eta pertsona bakoitzaren beharrak erdigunean jartzen dituztenak. Edo inklusiora zuzendutakoak, esate baterako, **Elkar-Ekin Lanean**.

Ohiko politika publikoetan ere, gauzak beste era batera planteatzen ari dira, **politika publikoetan berrikuntza txertatuz**. Adibide bat, **garraio publikoan** egiten ari den eraldaketa jasangarri-teknologia, edo **hondakinen** kudeaketan, non gainontzeko guztietan bezala, Gipuzkoaren lidergoa eta erreferentzialtasuna nabarmena den. Edo **komunitate energetikoen** sustapenean. Edo gure **basoen kudeaketa** publiko berritzailean

Zer esanik ez, zailtasun guztien gainetik eramaten ari den **euskara** indartzeko politiketan. Eta zailtasun handiak ditugu, lehengoak gutxi ez eta. Zailtasun berri handiak kanpotik datozkigun familia horiek guztiak gure hizkuntzaren normalizaziora erakartzeak dituen berezitasunengatik.

Eta, diputatu nagusiak esan bezala, nik ere ez dut aipatu gabe utzi nahi, epaitegietan eman den iraultza negatiboa: euskara hizkuntza ofiziala izatetik, de facto, mendeko hizkuntza izatera kondenatzen duena.

Ba guzti horri buelta emateko Foru Aldundia egiten ari den ahalegina ez dut aipatu gabe utzi nahi.

Adibide asko dira Gipuzkoako Foru Gobernu honen eraginkortasuna, berrikuntza zaletasuna eta ahalegin partekatua agerian uzten dutenak.

Mendoza Diputatu Nagusiaren **lidergoaren eta anbizioaren** adibideak. Beste asko, aipatu gabe geratzen dira.

Bestalde, Eider Mendozak planteamendu adoretua egin digu, gure gizartean ditugun arazoak saihesten ez dituen.

Bereziki, era gordinean azaldu duen arazo batetaz ari naiz: herritarren **ongizate emozionalaz**. Foru Aldundiaren Plan Estrategikoaren helburu nagusia pertsona guztien ongizate emozionala delako. Hau bai helburu anbiziotsua! Anbiziotsua eta Aldundiaren egitekoan esparru zabal bezain

berriak irekitzen dituen, ahal den neurri guztian positiboki eragiteko.

Diputatu Nagusiak gordin azaldu digu, halaber, Lurraldeko errealitate tristen: gure Gipuzkoa honetan, **txirotasunean** bizi diren milaka pertsona.

Pero en todo caso, también ante los problemas más difíciles de afrontar, la Diputada General nos ha planteado propuestas viables, reales y efectivas.

*Gipuzkoa tiene ante sí grandes retos. Grandes y complejos. No es el menor de ellos el de afrontar la necesidad de **cuidados** en una sociedad que envejece a marchas forzadas. La Diputada General nos ha planteado hoy una fórmula novedosa para acometer las grandes inversiones necesarias durante los próximos años para desplegar el nuevo modelo de cuidados en todo el Territorio. Mediante una **nueva sociedad pública**.*

Cuando se habla de financiación de inversiones y de sociedades instrumentales puede que a algunas personas las palabras no suenen “a cuidados”, pero se está hablando de más y mejores cuidados de calidad para la ciudadanía gipuzkoana.

Es decir, se habla de más bienestar para la ciudadanía.

En última instancia, el sello del Gobierno Foral que encabeza Eider Mendoza es el de la mejora continua mediante la innovación, la previsión, la responsabilidad con el futuro, la viabilidad de las propuestas, la eficacia en las políticas y la vocación constante de diálogo y acuerdo. Sin olvidar la corresponsabilidad con las futuras generaciones.

*Una combinación equilibrada de dos elementos: **sentido común y visión estratégica**. Es decir, buena política.*

--

Gero, ja, **oposizioko taldeen kritikak daude**. Normalean “kritika-tipo” bat egoten da, kritika estandarra, hemen eta han eta bazter guztietan aplikatzen dena. Adibidez, “lidergo

falta”, “betiko proiektuak”, “gobernuaren ahulezia”, “herritarren arazoetatik urruti dabilen gobernua” eta antzekoak. Beste batzuk, “espezifiko sektorialak”, ba zer dakit...; ez dakit ze “pribatizazio” zerbitzu publikoetan, edo “zerga Sistema erregresiboa” eta horrelakoak... buruz dakizkigun horietaz ari naiz.

Izan ere, nahiko erraza da oposizioa egitea. Hori pentsatu nuen joan den egunean Arabako oposizioko taldeen balorazioen entzun nituenean eta, berdin, Bizkaikoak irakurtzerakoan.

Oposizio argudioak nahiko transbertsalak izaten dira. Tia, ez denak: PPk esango dizu erreforma fiskalak enpresariak asaldu egin zituela eta EH Bilduk, berriz “zaugarrienak kanpo” utzi zituela. Eta, kasu honetan, arrazoi gehiago izango du Podemosek bere akordio fiskala erreibindikatzerakoan beste biek baino.

Edo EH Bilduk esango dizu aurrekontuak aurrera ateratzea gipuzkoarrei “iruzur egitea” izan zela “Espainiako eskuin muturraren eskutik”. Entzun dizkiogu horrelakoak. Baina kasu honetan PPk arrazoi gehiago izango du beste biek baino, gipuzkoarrentzat onak diren aurrekontu onak aurrera ateratzeko bere aldetik egindako ahalegina erreibindikatzerakoan.

Bestalde, PPk bere klasikoari ezingo dio uko egin, alegia: “guipuzcoanismoarena” ezingo du bazter utzi. Nola ba!

Edonola ere, Diputatu Nagusiak azaldu ditu Gipuzkoako benetako argazkiari dagozkion hainbat datu eta, datu horiek bere lekuan jartzen dute oposizioko taldeen argumentuen balioa.

Sin liderazgo, sin proyecto, sin rumbo, sin atención a los problemas reales de la ciudadanía, no se consigue que un territorio como el nuestro:

-se sitúe en el puesto doce –de 201– del ranking de desarrollo humano de Naciones Unidas; o sea, puesto 12 de 201

-sin rumbo, no se consigue una tasa de paro del 4.1%

-sin propósito, no se consigue tener junto a Eslovaquia la tasa más baja de desigualdad en Europa, con el doble de PIB per cápita, por cierto

Eta nola lortu da? Gipuzkoan lidergo sendoa, norabide zehatza, proiektu berritzaileak, eta gipuzkoarrek dituzten arazoen ezagutza sakona dagoelako.

Eta, gauzak horrela, Elkarrekin Podemosi eskatuko nioke Estatu osoan Gipuzkoakoa baino gizarte politika eredu aurrerratuagoa eta inbertsio handiagoa duenaren adibide bat azaltzeko. Ea non.

Alderdi Popularrak 11 erkidegoko gobernua du bere esku. Gauza bera eskatuko nioke: guzti horien artean non dago Gipuzkoan baino, Euskadin baino sistema hobea? Jarri adibide bat.

Eta EH Bilduri eskatuko niokeena da behingoz katastrofismoaren ezkortasuna alde batera uzteko eta errealtatearen ilunak ez ezik, argiak ere ikusteko.

Non hobetua badaukagula? Ba bai, hori bai, fijo.

Eta ez gera konformatzen.

Errealtatea aldakorra da eta arazo berriak sortzen dira etengabe aurreko arazoen ondotik. Ez dago formula magikorik ez eslogan errazik hori aldatuko duenik. Formula bakarra zintzotasunak eta ganorak osatzen dute. Eta zintzotasuna eta ganora ez dira itzuli-mitzulika ibiltzea, Iriarte anderea.

Beste datu bat aipatuko dut, bereziki garrantzizkoa iruditzen zaidalako eta orain urte beteko debatean zeresana eman zuelako, uste dut zuk jarri zenuela puntua, Echeveste

anderea, hemen desastre bat genuela esanez. **Gazteen langabezia.**

Ba, Eustaten datuen arabera, hara:

2024ean Gipuzkoan, %6,4koa zen gazteen langabezia. Euskal erkidegoko baxuena. Eta, nola ez ba, Estatuko erkidego guztien arteko txikiena. Berez, Estatuan gazte langabezia %20,2koa zen. Badago aldea, e? PPren aldetik hausnarketaren bat??

Eta, EH Bilduri gustatzen zaion bezala, Europara joko dugu: Europar Batasunean %11,3koa zen. Are gehiago, Gipuzkoak eman ditu daturik onenak Alemania, eta Txekiar Errepublikarekin batera. Gauzak esaten dira eta, une horretan daturik ez baduzu, hor geratzen dira. Bada, urtebete geroago esaten dizut gauza nola den, Echeveste anderea.

Eta EH Bildu aipatu dudanez..., Bildu Aldundira heldu zen aspaldi hartan, gazte langabezia %14,7koa zen. Bere agintaldia amaitu zenean berriz, %26,5ekoa. Bildu itzuli-mitzulika ibiltzera dedikatu ote zen ba bere agintaldian?

15etik, %26tik %6ra jaitsi da. Arrazoi askogatik, egoera ekonomiko orokorragatik, jakina, baina ez du eragin berdina izan alde guztietan. Eta baita, Euzko Alderdi Jeltzalearen esku dauden euskal erakundeek, bai Jaurilaritzak eta, nola ez, Foru Aldundia, itzuli-mitzuli ibili gabe, lan handia egin dutelako Lurraldeko ekonomia ehunaren lehiakortasunaren alde.

Eta EH Bildurekin jarraituko dut. Garbi esango dizuet: orain artean, **akordioak egiteko ariketan ez zarete sinesgarriak.**

Ez zarete sinesgarriak eta hori arazo handia da. Izan ere, herrigintzan akordioak lortzeko sinesgarri eta **fidagarri** izatea oinarritzko gauza da.

EH Bilduk aspaldi honetan, balizko akordioen bandera ateratzen du sarritan. Zu zeu, Iriarte anderea, igandean bertan agertu zinen, Iriarte anderea, akordioetarako omen

duzuen “prestasun osoa” azaltzen, “hau da momentua” esan zenuen, “politika publikoak herritarren beharrei erantzuten jartzeko” (+/-). “Hau da momentua”, zuek beti momentuak markatzen. Diputatu Nagusiak esan du inoiz baino beharrezkoagoak direla adostasunak. Baina, **noiz ez ote da ba izan herritarren beharrei erantzuteko momentua?**

Eusko Alderdi Jeltzalearentzat beti izan da momentua. Beti. Adibidez, beste batzuek KAS Alternatiba lantzen zuten bitartean, guk Gernikako Estatutua lantzen genuen. Edo, beste batzuek Oldartzen Ponentzia lantzen zuten bitartean, Ardanza lehendakariaren Eusko Jaurlaritza eta Eli Galdos diputatu nagusia zela Gipuzkoako Foru Aldundia %25eko langabezia tasari konponbidea ematen saiatzen ziren. Bi une historiko aipatzeagatik.

Zergatik aipatu ditut? Ba joan den egunean Rafa Díezek eta Eugenio Etxebestek sinatutako artikulua bat ikusi nuelako. Artikuluaren tesia zen, gutxi gorabehera, euskal gobernua ETAk lortu zuela: *«Al fin y al cabo, vosotros, si no llega a ser por ETA, no tendríais ni Ertzaintza, ni Estatuto, ni nada»*. Barrionuevoren tesia, Xabier Arzalluzek aipatzen zuenez. Eta Joseba Alvarez, berriz, tuit batean irakurri diot, ETAk berpiztu zuela euskara. Bi adibideak ere historiaren manipulazio ikaragarriak. Eta horren aurrean, pare bat egia berdadero aipatu nahi izan ditut kontrapuntua jartzeko. Nahikoa dugu eta!

Eusko Alderdi Jeltzalearen 130 urteko historian, une guztiak izan dira Herriaren eta herritarren alde lan egiteko uneak. Oraingo hau, ere bai, jakina. Eta une guztiak adostasunak lortzeko aproposak. Baita hau ere.

Edonola ere, borondate osoa dugu akordioetarako, baita, nola ez, EH Bildurekin ere. Diputatu Nagusiaren ahotik hitz egingo dut bera ere prest dagoela esateko. Aurtengo aurrekontuetan Eider Mendoza saiatu zen, ondo saiatu ere, eskatutako ia-ia guztia emateraino. Total, hamargarrengo aldiz jarraian, EH Bilduk, ez.

Ikusiko dugu hamaikagarrenean zer gertatzen den. Akaso, Madrileko lankidetza estu eta Nafarroako “sinbiositik” haratago, Gipuzkoan ere jarrera aldatuko duzue. Ea hala den!

Eta Israel Gazan egiten ari den genozidiora itzuli nahi dut. Euskal gizartearen gehiengo handi-handi batek bat egiten du sarraskiaren amaierarekin.

Euskal gizartearen gehiengo handi batek era baketsuan adierazi nahi du bere iritzia. Euskal gizartearen gehiengo handi bati ez zaizkio egokiak iruditzen seinalamendu selektiboak: herritarrek muinera jo nahi dute.

Gauzak horrela, PP animatu nahi nuen “genozidio” hitza erabiltzera, baina berak erabili du gaur; beraz, animatzen dut PPko Mikel Lezama “genozidio” hitza Alderdi Popularrak han erabili dezan. Eta horrez gain animatzen dut Feijoori erakuts diezaion etorkinen inguruan hemen defendatu duen politika.

Elkarrekin Podemosi hurkoari exijitzen ibili beharrean, neurri hori bere buruari aplikatzeko esango nioke: Espainiako Ministro Kontseiluan egon zineten bitartean zenbat kontratu sinatu zenituzten Israelekin? Habea zuen begian daukazuen bitartean, bestearen begiko lastoa eramanez ezinik ibiltzen zarete.

Hortik haratago, galdera bat: zergatik markatzen duzue hain desberdintasun ikaragarria biktimen artean? Netanyahuren Gobernuak 65.000 pertsona hil ditu eta gure ahotsaren indar guztiarekin salatzen dugu genozidioa. Eta Putinek, Ukrainan 100.000 pertsona hil ditu dagoeneko eta horien artean, 20.000 ukrainar zibilak dira.

Dejen de hablar con la boca pequeña de lo que está haciendo Putin en Ucrania. No, al genocidio de Netanyahu. No, a la barbarie de la invasión rusa de Putin en Ucrania.

*Y es que, en derechos humanos y en derecho internacional humanitario **la coherencia es fundamental.***

El mismo mensaje cabe dirigir a EH Bildu en relación con su doble vara de medir el escenario de Ucrania y con la sutileza con la que se refieren a Putin. Con sutileza y con reparo.

Hilaren 21ean, Nazio Batuen Bakearen Nazioarteko Egunean guk esan genuen, ezkutuan ibili gabe: Gaza eta Palestinako genozidioari, EZ! Eta Ukrainako sarraskiari, EZ!

Bakeari, BAI!; nazioarteko zuzenbideari, BAI! Eta multilateralismoari, BAI!

Bukatzeko,

Zorionez, **Gipuzkoa ez da oihal zuri bat**. Zorionez, orain baino lehen beste askok egin zuten beraien aportazioa.

Oinarri horren gainean ari gara, gaur, Eusko Alderdi Jeltzaleko gizon eta emakumeok herria eta lurraldea eraikitzen. **Jasotako oinordetza oinarritzat hartuta ari da eraikitzen Eider Mendozaren gobernuaren ere**. Ikuspegi berriarekin, arazo berriekin, proiektu eta estrategia berriekin, formula berriekin eta helburu berriekin, bai. Baina oinarri sendoekin.

Eta hau esatea beharrezkoa da entzuten ditugun diskurtso zeharo adanisten aurrean.

Baina orain arte egindakoarekin eta lortutakoarekin ez gara konformatzen. Erakundeetan Alderdi Jeltzaleko PNVren ordezkarien ezaugarri nagusia, etengabeko hobekuntza da.

Baina ez da posible errealitatea eraldatzea ez bagara abiatzen orain artean lortutako errealitatea aitortzetik.

Aurretik egindako lan horren emaitza da gaurko gure ongizatearen maila, gure industriaren lehiakortasuna, gure gizarte politiken sendotasuna, gure Lurraldeko berrikuntza maila, gure hizkuntzaren biziberritzea, hainbeste gauza. Ez da autokonplazentzia, datuak dira.

Eta horri guztiari segida ematen jarraitzen du Eider Mendozak. Bere hitzaldia benetan ona iruditu zait: berritzailea, anbiziotsua eta adoretua, batetik. Bestetik,

egingarria eta eraginkorra. Politika onaren adierazpena; itxaropena eta ilusioa sortzen duen politika klasekoa.

Hau, bereziki, **EH Bilduri esaten diot**, bere **komodin dialektikoa** mila aldiz entzun diogun **“beste eredu” bat** delako. Beti “beste eredua”, “erabateko” eraldaketa, “eraldaketa estrukturalaren beharra” eta horrelakoak..,

Ba hainbeste eredu eta eraldaketarekin agerian geratzen dena da... Ez duzuela formulatzen zuen eredu delako hori! Bietako bat: EH Bilduk ez dauka eredurik edo ezkutatu egin nahi duzue. Zeren adi-adi gaude urte mordoa zuen eredu hori zer izango. Gaur arte.

Ba EAJk badauka eredua; eta denborak eta errealitateak abalatzen dute. Etorkizunera begira dagoena, epe motzeko eta epe luzeko begiradaz. Mendoza Diputatu Nagusiaren eredua.

Eredu gauzagarri horren inguruan luzatzen dizuegu elkarrizketa eta akordiorako borondate zintzoa: euskaran, zaintzan, industrian eta ekonomikoan edo aurrekontuetan. Guztietan, eduki zehatzen gainean eskainitako akordioa.

Eta, bukatzeko ez dut aipatu gabe utzi nahi: Foru Aldundiaren politikei buruzko hainbat mozio aurkeztuko ditugu eta espero dugu guztion artean akordioak lortzeko gaitasuna izango dugula.

Eta, besteak beste, baita ere, euskal autogobernuaren sakontzeari buruzkoa eta Estatus Berri batek behar dituen akordioen ingurukoa aurkeztuko ditugu aurten ere: nazio aitortza eta aldebikotasuna oinarri duen Estatus Berriaren aldeko aldarria eginez. Finean, euskal nazioaren eskubide politikoak aldarrikatuz, eta nazio modura geureak ditugun eskubide politiko kolektiboak erreibindikatzuz, alegia, herriaren etorkizuna erabakitzeko eskubidea. Euskadiren etorkizuna geroz eta oparoagoa izan dadin. Akordioa lortuko dugulakoan.

Adostasunak behar ditugu eta hori da gure egitekoa,
guztiona, gipuzkoarren onerako.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 2025-09-30